



ACT-MC-2019/0033

KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTA
BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

Espediente zbkia: 5-O-28/2018

Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO EGITURETAN ETA EZPONDETAN JARRITA DAUDEN AINGURAKETAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA. (5-O-28/2018). 2. Artxibo elektronikoak irekitzea.

Eguna: 2019ko maiatzaren 20a

Hasiera /amaiera ordua:10:00/10:30

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren 0.6 gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Lehendakaria: Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.

Bokalak:

Agustin López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Obreetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua (lehendakariordea eta 1.bokala).

Ramón Giménez Díaz, Bide Azpiegituren Bigaitze eta Berrikuntzako Zerbitzuko ITOParen ordez.

Elixabete Martínez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Itziar Aristondo Fernandez, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko burua.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren ordez.

Ekintza honetarako mahaiburuak M^a Carmen Delgado Vallejo izendatu du idazkari bezala, eta Ramón Giménez Díaz, Bide Azpiegituren Obreetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko ITOPa, administrazio-klausula partikularren agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

2019ko apirilaren 30ean lehenengo artxiboak ireki ziren. Egintzan kontratazio-mahaiak erabaki zuen Ingek eta Tysa enpresei errekerimendua bidaltzea kaudimen teknikoak justifikatzeko. Emandako epean, biek erantzun dute eta ontzat eman da.

Gaur, 2019ko maiatzak 20, goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bigarren artxibo elektronikoak irekitzeko: *BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA*. Kontratazio honen administrazio-klausula partikularren agirian ezarri den bezala, balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar da haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintzek agirian ezarritako irizpide guztiak sartu dituztela.

2 zenbakiduneko artxibo elektronikoak ireki dira, eta enpresa guztiak bete egin dute eskatutakoa. Eskaintza teknikoak aztertuko dituzten teknikariek ziurtatuko dute 2.artxiboetan lizitatuzaileek ez dutela jarri 3.artxiboan sartu beharreko informazioa. Bestela, kontratazio-mahaiari jakinaraziko zaio dagokion erabakia hartzeko. Oharrik edo erreklamaziorik egin ez dutenez gero, ekitaldia amaitutzat eman da.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, berau onartu ondoren.

Donostian, 2019ko maiatzaren 20an

MAHAIBURUA,

IDAZKARIA, ordezkapenez